



UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



IZENBURUA:

Zarauzko esperientzia

EGILEA:

Rita Aldabaldetrekua Gonzalez de Txabarri

DATA:

2018/05/17



LABURPENA

Nola izan da Zarauzko Euskaraldia sortzeko prozesua? Zein bide egin duzue?

Lehengo urteko udara aurretik, Korrika zela eta, herritar talde bat bildu zen Zarauzko euskararen egoerarekin arduratuta. Aldi berean, udala ere mugitzen hasia zen, Zarautzen euskara elkarte baten falta somatzen baitzuten.

Bien artean eta Topagunearen laguntzaz, Kike Amonarriz gonbidatu zuten hitzaldi bat ematera eta Zarautzen euskaltzaleen elkarte bat sortzeko beharra eta asmoa azaldu zituzten. Bertan parte hartu zuten herritar ordezkari, udal ordezkari eta Topaguneko ordezkari batek ere. Aurkezpenen amaieran elkarte hori sortzeko prozesu parte-hartzaile baterako gonbita egin zitzaizen bertaratutako herritarrei.

Hitzaldiak izugarrizko arrakasta izan zuen. 200 bat pertsona bildu ziren guztira eta horietatik askok prozesu parte-hartzaileara joateko edo informazioa jasotzeko prestutasuna erakutsi zuten.

Hala, udara ostean Topaguneak gidatutako hiru saiotako abiatze prozesutik jaiotzen Zarauzko Euskaltzaleen Topagunea. Bi azpibatzerde osatu ziren: Euskal Jaiak eta kultura lantzekoa bata, eta euskararen erabileraren ingurukoa bestea. Euskaraldia maitatzean aurkeztu berri, azken talde honek Euskaraldia antolatzeke arduratu hartu zuen. Bere aldetik, udalak ere Euskaraldiaren aldeko apustua egin zuen, baliabideak jarrita. Orduan sartu nintzen ni istorio honetan Zarauzko dinamizatzaile eta Gipuzkoako sustatzaile roletan.

Horretan dihardugu orain. 30 bat pertsonako batzordea dugu, hainbat herritar, eragile eta udaleko ordezkariak osatua. Kikeren aurkezpenean informazioa jasotzeko interesa agertu zuten herritarrak ere zertan gabiltzan badakite eta kide berriak ongi etorriak dira.

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



Nola antolatzen ari zarete Zarauzko aktibista sarea eta zein beste ekintza plan nabarmenduko zenuke (Lautada)?

Lehen aipatu dudan moduan, Zarauzko Euskaraldiaren antolaketa herriko batzordean oinarritzen da. Bertan 30 bat pertsonak hartzen dugu parte, herritar eta udaleko ordezkariak tartean. 23.000 biztanleko herria izanik, badakigu 30 ez dela nahikoa herritar guztiengana heltzeko eta garrantzi handia ematen diogu saretze lanari.

Arabako Lautadakoak hartu ditugu eredu saretze lana egiterako orduan, beraiek erabili duten estrategia aplikatzen ari gara.

Saretze lan honen helburua honakoa da: herritarrek Euskaraldian izena ematea eta izena ematen duten horiek ahobizi eta belarriprest izatea. Hau da, herritarrek Euskaraldiaren berri izan behar dute, zer den ulertu, ahobizi edo belarriprest figurak ezagutu, horietako bat izateko izena eman eta azkenik, 11 egunez ahobizi edo belarriprest izan behar dute.

Horretarako, batzordeak hiru egiteko ditu: izen-emateak sustatzea, ahobizi eta belarriprestak formatzea eta saretzean lagunduko dieten sustatzaileak lortzea.

Izen emateak sustatzeko, komunikazio lanetan gabilitza orain. Sare sozialak, hamaikakoaren aurkezpena, kartelak, eskuorriak, festetan mahaiak jartzea... badakigu jendeak parte hartzeko gertuko gonbidapena jaso behar duela, babestua sentitu behar duela eta segurtasuna eman behar diegula. Horregatik, ondoen funtzionatzen duena aurrez aurrekoa da. Kanpaina indartsuena udaran zehar eta udazkenean egingo dugu, batez ere.

Irailetik aurrera, izen-emate epea zabaltzearekin batera, ahobizi eta belarriprestentzako prestakuntza eskainiko dugu hainbat formatutan, profil eta adin ezberdinetako jendearengana heltzeko: tailerrak, gomendio orriak, bideoak... Prestakuntza honekin lortu nahi dena ahobizi eta belarriprestak izena ematetik izatera pasatzea da.

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



Azkenik, sustatzaileak lortzen gabiltza. Sustatzaileak dira Euskaraldiarekin bat egiten duten eta beren entitatean Euskaraldia zabalduko duten eragileak. Orain batzordea buru belarri dabil sustatzaileak lortzen, herritarrengana heltzeko lana asko errazten baitigute. Hainbat eskola, aisialdi talde, kultura elkarte edo elkarte gastronomikok dagoeneko adierazi digute Euskaraldian sustatzaile izateko prestutasuna. Hauek ere batzordean parte hartzera gonbidatzen ditugu, noski. Azken batean, herritar guztiok, udalaren babesarekin, osatzen dugu Euskaraldia eta guztion ekarpenak dira ongi etorriak.